V URTEA
232 ZENBAKIA
Iraila 27
IGANDEA
DONOSTIA 1925

D. Gregorio Maidagán
Beloncilla, 21, 5.º
883 Bilbao

BIDAYEN ITUNDURA
FRANQUEO CONCERTADO

ARGIA

ASTEROKOA

URTEKO: 5,50
Bakoitza: 0,10
28. GARIBAI
25-05 URUTRIKIÑA

ASTEA

Oriyamendi txapelez bete zan. Guda berien bai sortu ote zitzalgunen karamarua barenen generabilkiguna bilduraz noski, bilduraz beti, batez ere mikeletiak ikusi-ta. Etzan, antziña bezelako gudik: beste guda bat inguruan zebilen, jo gora, jo bera, ta beti toki batean.

Erranai parez ageri zan, telatu gofiz burua jantzi-ta: abo-betian parez, ainbeste jende ingurumari ikusi-ta. Erdi bete, ta oso-bete zeukan kupelak, soto-atariyetara atera zituen, nai-zuenak, gangar betean, sagardo ori-edefa edan zezan. An zegoen erdia, kupelen ertzian, zuratxo-puxketa, erdi-euskera, erdi-erdera: edan ta «paga».

Bakoitzak bere prakak eusten ditu, ta ernaniarak ere, etzuten, musu-irukian, ezer eman nai.

Garaiz igaro genuen Andre-kalea, bañan ez genuen andretxo bat ere ikusi, zotafain-ganean beintzat.

Udal-etxe eder azpitik ufutiratu giñan, ta Urnita baño lenago, eup! eup! ezin auferatu giñala, oju egin ziguten.

Ez ginjoazen gure gogoz: ARGIA'ko zuzendari jaunak emandako agindua bete nai genuen: zoazte ta ikusi ezazute.

Amaika bider etofi zitzaigun burura: Ua edofi, ta ase adi... Ufutizkiñaz esan geniyon: Jauna: erdi-erdilik artu ta, baztararera bota gaituzte. Gauden tokitik, ezin ezer ikusi. Gure lana bukatu dagu, bedofen baimenarekin.

Ta sagardotegi batean sartu giñan, «aribadan», kanabel ta guzi.

***

Etzan gutxigorako! irubideko zuluan, gizon bat garbitu zan, dalako «automovil»-gudan. Gizaldi kaskafak uxatutako gizona baño kupira geyagoz. ¿Noiz arte ofen biotz gabe? Ez dira gizartekoa jolasketak ofelako kofika-dembat, batez ere suzko-kutxa beltz oyetan gizonak jo-ito sartu-ta. Ez dute, oraindik, euskaldunak ofelako gauza zital ta galgaririk sortu.

Gizon bat galdu zan beintzat; afen gogo alde, jainkoari otoi!

***

Afantzale-Batzafa, aste ontan, dabil bete-bete.

Naiko ura bota diyote kankar beri oni, bañan alaz ere, bafengo afayak patxadan ibiltzeko ainbat, ez omen da bete.

Prantzitik, gizon jakintsuak etofi zaizkigu: oyen artean, bertako agindari-nagusi bat. Prantzik biali ditu ufazpi-ontzi bat, eta urgañeko beste eder bat.

Afokako krabafokak afitu-ta zeuden; antxetak ufungaka; ta beltx-beltx ibili ol dan polofuak, algara pranko egin zuen, kai-muturean etxe-galanta egin bear dutela, jakin zuenian. Pozik zebilen, etxean safera izango duelakoan.

Bañan danik polofoen polofoena izan-da ere, musuluts geldituko dala, deritzagu.

Aldundi-Jauregiyan, afantzakustol edefa jafi dute. Antxe ibili giñan, jo bat eta jo bestie; bañan gan bai genuen gauzik etzan ageri. ¿Zer nai ote genuen? Ez da asmatzen gaitza: Oriyotafen trerua!!... A guria balitz!!

KARE «ELUR-ZURIYA»
Eskatu MUNITA'ri
LIZARZA'ra

¡Iz dedila, afen, ori gefta!

Efi-oletako (fabriketako) txistu otsak beren gafaxi bizi-zoliaz, beko lankeien adiagile, goruntz igoaz, mendiz mendi zabaldu dira. Ots oek, beste zuzmuf zirikatzaileikin batera, basetxietan ere entzun dira: Gizakiak, kalean, be-aldean, goitafak, menditafak baño bizipide efaz eta egokiagoak dauzkala; lana, bean, emankoragoa ta atsedentsuagoa dala-ta.

Atxupiaga basetxera ere ots ta zuzmuf oek igoak ziran, ta beftako gizasementzat bai zirikelari gogorek. ¡Zeinbat gogo beri sofiarzi dizkien! Izpiñ gozoen entzuteak iluratuta, gazteak, aspaldiik, beruntz begira zeuden: kalera bizitzera joateko irikiz efneatzen. Obetoago bizi izateko asmoak, irudimen amestikofak aundiagotuta, jaiotetxea kezka aundirik gabe utzeko efextasuna sofizen dute gaztien afrean. Gurasо zafak, ofdea, jaiotetxeari taiskak daukatelako beren bizikera ¡zein galtz! ¡zein mingof zaien uzten!

...Basetxe zafaren aterin, gurdia, oazura ta beste etxe-tresnez zamatuta, aldakuntzarako geftu dago. Gurasoak, Efamun ta Maxepak, atzkenik, gogoz ez izan afen, beruntz jo bear, gazteak ala nai zuten da.

Eguzkiaren agufaz batera aguriu dute jaiotetxea: gazteak, pozik; zafak, negafti. Ask, bizikera beri bat asteko uste leun-xamufez gogoa gozotuta; oek berfiz, beren bizitz osoa izan dan lufalde maiteak utzi bearak biotza gafaztuta.

Mendi alaiak goien geratu dira. Gurdia, orain, beko ofeka zokoetan safituta, txiri-txifika efiruntz dijoa. Efamun ta Maxepak, goi afgitsuetatik aldenduz beko itzalpean auferatzen diralarik, beren gogoetan ere, afgia amaiuaz, itzala zabaltzen dala digafte. Senar-emazteak, ixilpean, begiratze utsez, alkafen oldozkunak uleftzen dituzte.—«¿Nora goaz, ene? ¡Zein baztar ilunak!»—Ta bide elbotik dafaiki duten efekatxoaren otsak ere, durunda negafdunak zeritzaizkien. Ta semien «aidik» estenkadak bezin sofotz biotza zulatzen zien. An, bean, afean, efiko afgik bana-banaka agefizen dira...

Efira iritxi ziranean, eleizako ofloajoak bederatzik jo ziuan: jokaera geldi-gogofean. Eti osoa, kalegoinetik asita kalebarunerafio, igaro zuten. Bizianle gutxi afkitu zituzten; afdotegi eta sagardotegi aterietan batzuek. Barun, ofdea, zaratak adierazten zutenez, mofdoxka galantak baziran.

Tresnak agurotxo batean igo zituzte etxe berira. Oazurak gefin jafi zituztenean, oera joan ziran guraso zafak. Nekatuta afkitzen ziran-da, berialaxe lokafuko zirala uste zuten; aldi luzean, ofdea, urduriz igika ta biroka, lokafiu ezifik zeuden. Auzoafdotegiko lakanbil eta mafmar oisak bizi-bizi entzuten zituzten da ¿nork lo egin? ¡Alek ero-elgarak! ¡olek deadar-zantzoak! Basetxeko pake-ixil-edafez ¡noia oroitzen ziran!

—¿Ze ots da ori?—galde-egiten dio ernazteak Efamuni.

—Afdotegiko lakanbilak ditun deranzuo senafak.

—¡Ai, Efamun!... Nere burueren kezka eta susmotxafen beri ¡bikiekk!... ¡Ai, ene; jez dilezela gure nemeak galpide ofetan ondaiul ¡jainkoafen! ¡ez dedila ori gefta! ¡Ai!...

—¡Ago izilik, Mexepa!... ¡Etzanala negaf egin!...

OLAÑKA

Euskerazko idaztiak

Zabala-Arana Abarenak

Edozti Deuna (Ilun. Sagrada)	1,50	lauefiko
Dancufiztia (Ciencia)	1,20	—
Elizia (Cromática)	2,00	—
Asse Onena	0,00	—

Eskatu: *PP. Corazonistas*
Carmel'enea. — Amgofieta (Donostia).

ARGI DONEA

—Eleiz aldera, Manfoni?

—Bai Joxepinaxi; igandero bezela.

—¡Orixe liburu edefa damakizuna!

—Befiya baita eta ez nolanaikoa ere ARGIA asteroko periodiko txukun oek atera da, eta urte guztiko igande ta joyetako Ebanjelioak, kantu politak, Meza laiñez eta euskeraz, Efosariyo, Gurutz-bide, Meditazio, Otoitzak garai guztietako, ta ¡nik ez dakit zer ez dakafen liburu bikain oneki! Gañera ¡ze euskera garbi ta efexa!

—Ba, ofela baldin bada, neronek ere erosi bear det, oraindaño erosi dituanak beri xamafak izan afen ez dira ofen osoak eta.

—Ederki egingo dezu: «Liburu au—Iruña'ko Obispo jaunak dionez—euskaldunak zintzo eta gogoz irakufizen badute, lufeko egun labufak bukatzean, zerusen sariuko ditu».

—Zenbat kostetzen da?

—Lau pesetetik asi ta 20'rañokoak badira: bafena guztiak berdiña dute, bañan azala batzuek besteak baño garestiagoa ta obea.

—Nun saltzen da?

—Urengo Donostira zoazenean gelde zazu ARGIA'n eta antxen emango dizute: etzazu damutuko.

—Afazoi dezu; orixe egingo det.

IZEN ONA

Bein batean *Soa*, *Ura* ta *Izen ona* elkafekin zijoazen. Banatuta geltzeko bilduf ziran, eta otu zitzaien galduezkero nola elkaf aufkituko ote zuten jakitea.

Soa'k esan zuan: «Ni, kea darien toki guztietan afkituko nazute»

Ura'k esan zuan: «Ni, toki zingiratsuetan afkituko nazute».

Eta biyak batean *Izen ona*'ri galdetu zioten: «¿, adizkide, nun afkitu al izango augu?»

—«Ni, (erantzun zien *Izen ona*'k) bein galdu ezkero, galduta nago beftiko: ez nau inork afkitu al izaiten.»

LABEKO IKATZA SALGEI
150 zakutik gora
Zuzenbidean: Temas Zubizarreta, Albiztur

Ikaslien kontuak

Beti izan dira ikasle edo «estudiantiak» ateraldi zofotzak euki dituenak.

Bein Madrid'en ikasle batzuk zeukaten ostatuko etxekoandria elpef xamafa zan eta ezcretaiko batek esaten zuanez aste osoak igaroizen ziran oeko kolixoia afotu gabe eta oregafik askoten oia «agure dolor baten biotza baño gogoregua» bilatzen ol zan safitan.

—Etxekoandre—bein baño gelagotan esan zion—¿zenbat denbora da nere oeko kolixoia afetu ez dezuna?

—Egunero astintzen det ondo, jauna. Oso kolixoi ona da, artil asko dauka eta ofegafik gogortxua dagola iruditudo zaio.

Etxekoandriak esaten ziona sinizten ez zulako asaoten esan ol zan bere artian. ¿Zer egingo det nik etxekoandriak bear dan bezela oerik ez dula egiten argi ta garbi ikusteko?

Lafusiko lepoko bat zeukan etxekoandriak, denboreakin elperik galdua egon afen berak oso maite zuana, bere senafa izenaren eregelan zalako. Otz guxi egin afen ez zun bere lepoko barik irietzen kalera ¡berak *seitora* aundikien ixura ematen ziola uste bal zun!

Ba jauna... gure ikaslea oe gogofian lo egiten asperturik artu zun etxekoandrian lepokoa ta luze-luze eginda eskutatu zun bere oeko kolixoipean.

Etxekoandria zoratuta bezela ibili zan bere lepoko maitearen bila. Etxe guztia goitik eta bera dana astartu zun baña ilundik ere ez zan agiri.

Ezin leike esan zenbaterañoko gafasiak egin zitun bere senar gizajoek eregalatutako lepokoagatik. Egun batan ta beste batan, gozatizerakuan, bazkaltzerakuan ta afaltzerakuan beti zegon bere lepokoa gora ta lepokoa bera.

—Baña ibili al zera bilatzen etxeko toki danetan?

—Ez det lagu baztar bat ere arakatu gabe ¿nun ote dago baña, nun? Igaro ziran egun askotxo jasoera ontatik eta ikasle ofen oia egiten eri zan baten bururatu zitzaion etxekoandreai puxkak asiintzeko *koltxoin* «buelta» emaiia eta...

—¡Ageriu da lepokoa! Emen dago nere biotzeko lepokoa! deadar egiten zun zoro baten gizon etxekoandriak.

Eta bere lepoko maitea ta laztanka jan bearian, jun zan bazkal ordua zalako ostatuko danak batula zeuden *komedorera*.

—¡Zure ocan Adolfo jauna (orla zun izena ikasleak). ¡Antxe kolixoipean eskutatuin zegon lepokoa!

—¡Ara erantzun zun tenplau-tenplau ikasleak) zure lepoko ori nere kolixoipean zegoana espaldik ne-nekien nik!

—Eta nola ez didazu esan maitxuf ofek?

—Zeofek esaten zendulako etxeko baztar guztietan begiratu zituzte... Gañera zelako begiak dituzu etxekoandre, zeuk askotan esan dezun bezela *egunero* nere kolixoia astindu ezkero lepoko «deabru» ori ez ikusteko? Tira, tira, etxekoandre eleginda zaite *egunero* eta *ondo* olak egiten eta ziur egon zeikezu zure lepoko ofek cz duela eskutuko iokirik bilatuko.

Etxekoandreak ondo ulertu ei zun ikaslearen zirikedia eta afczkero *egunero* ta *ondo* egin ol zitun olak, kolixoiak ederki astinduez...

Elosu Mendi'k euskeratua.

LEYOTIK

¡Zein orlegiak nere leyotik
dakusdan malda jeikiak,
gure itxaropen amesgafien
irudi maitagafiak!...

¡O zein edefa oyen itxura
uri ixilaren atzian,
beren lefoaz migatzen duten
oskarbiaren azpian!...

Luf ziralatik goruntz jeikita,
beti zeruorntz begira,
ain eder egin zitun jaunari
eskar ematen bezela
nere leyotik ageri diran
malda naruen ilunak
uxatu dizkit gogo-mingafi
nitun oldoskun iluna.k.

. . . . . .

. . . . . .

Mendi urdiñen malda orlegi,
muñatz naroki jantziak,
nere etxetxoko leyo-aufian
goruntz begira jeikiak:
¿nola ain ixil zaudeten oyek
dezute jardun itxura,
mintzo antzeko zuen zer ori
datorkidala gogora?

¿Zer desazute zuen izkuntza
bigun ta gelizuarekin,
nere gogoan yoran beñak
esnatzen ditun orekin?
¿Zer dasazute?... ¡Oi! nik ez dakit
dasazutena ederra,
bai baña nere gogo bafuan
zuen ilura nabaitzen;
ta gaur nazute geldi arazo
zuei begire gozaro
maite zaitutzen biotz orokin
aitzen dakizutelako.

TENE

Deba'tik.

ARGIA'ren idazki-batzaldia

Lau *Gai* genituen batzaldi onten: *Ipui alaiak*, *Nekazaritza*, *Olerkiak* eta *Izkirimiriak*.

Nekazaritza'z ez digute ezertxo ere bialdu. Euskel idazle afrean nekazaritzaroko zalatasun guxi noski.

Beste galeizaz asko ta politek azaldu zaizkigu.

IPUIAK

Ogeita zazpi idazki afiu ditugu. Guziak ez dute ongi ulefiu *gai* au, edo... ez dute oefiu nai izan: Gu beintzat, *ipui alai ta pafegafitzat* bialdu dizkigten idazki oietako batzuek, ken bezelaxe *seriyo-seriyo* utzi gaituzte. Beste batzuekin ¡a ze pafegafrak egin ditugun!

Saritu ditugunak auek dira:

«Don Bruno sendagilea eta Katxan botikariaoa»; «Botikariaoaren oturuntza»; «Don Kirtenzio sendagilea»; «Ikaslien kontuak».

Lau ipui «Edozein»'ek bialduak. Bi lenengoak luze-xamafak dira, ta lau-bost araldunak izan afen, banaka ezin litezke argiratu; beraz, atalka ez ditugu sariftzen, atal guziekin bakoitza bat bezela baizik.

Lau ipui: *40 peseta*.

Egilea: Idafeta'taf Pantzeska (Bergara).

«Jaungoikoaren Zumia» (Gezurti lapufa); «Eramenkizun-osakizuna» (Notzpait); «Afokeri zitala» (¿Sinista al dezu?)

Iru ipuiai: *30 peseta*.

Egilea: Garbizu'taf Toma (Lezo).

«Baseritaf bat Paris'en» (Algori): *10 peseta*.

Egilea: Zugazaga'taf Jon (Galdakano).

«Ilargiko gizona» (Argizariak zelutik: *10 peseta*.

Egilea: Markiegi'taf Joseba.

«Epaile zuzena»; «Eizlaria ta zinaldaria»; «Asteputz»; «Gizon indafiuak».

Lau ipui: *40 peseta*.

Egilea: Ganberetxe.

«Ama edukitzetik ugazama edukitzera badago zerbait» (Neu): *10 peseta*.

Egilea: Loentxo.

***

«Bai gizona, ilargian norbait badago». Au ta «Ilargiko gizona» ipui bat dira: oni eman zaio saria.

«Sendagilea ta Keltano» (Zerbitzari). Ipui au ta «Don Bruno sendagilea eta Katxan botikariaoa» ere bat dira. Edozein'ek idatziari saria eman zaio alaitasun eta gatz gelagro dualako.

«Erlojerua», ARGIA'n, 1924'ko Garagafilaren 22'an argiratua da.

«Txori-ipuiak» (Txofo-txioka). Iru ipui *lapuf* auek, guk eskatzen genituen alaigafi ta gatzdunen afrean ezin ditezke safitu. Alaz ere, egileak nai badu, irurak argiratzako ditugu, egokitzen zaigunean, irurakotik *amaf pesetako* saria emanaz.

«Afrotsu ta otsi»; «Afro bero usaio»; «Ekotsu ta otsi», ta «Esate baterako». Ipui aalean safitzeko ez dira egokitzen. Izkirimiritzat artzen ditugu, *10 pesetako* saria emanaz.

OLEÑKIAK

Emeretzi afiu ditugu.

Sarituak

«Bizitz Menditafa» ta «Nere Eresia»: *20 peseta*.

Egilea: Jauregi'taf Luis.

«Datofena betor» eta «Afe estoa»: *20 peseta*.

Egilea: Emiliano Mujika (Albiztur).

«Lili gaxoa»; «Maite Jainkoa», ta «Donokiko Amari»: *30 peseta*.

Egilea: Garbizu'taf Jon (Pasai Antxo).

IZKIRIMIRIAK

Bederatzi txofta azalde zaizkigu

Sarituak

«Argi Donea»: 26 izkirimiri; gelenak politak: *20 peseta*.

Egilea: Dionisio Martiarena (Oyarzun).

«Iufi-befi-gofi-goiko-efotakoetxea»: 20 izkirimiri; batzuek ezagunak, baña gelenak argitagafiak: *15 peseta*.

Egilea: Ormazabal'daf Jose Maria (Anoeta).

«Edozein»: 7, guziak argitagafiak: *10 peseta*.

Egilea: Idafeta'taf Pantzeska.

«Risum teneatis»: Bi txorta; batean 24 eta bestean 14. Asko ezagunak eta batzuek ARGIA'n lendik argiratuak. Biakatik: *15 peseta*.

Egilea: «Loren».

«E. J. R.»: 13; batzuek ezagunak; lau edo bost politi eta jafofak: *10 peseta*.

«Kufin-Kufin: 16; bi-iru ez besteak motelak eta ezagunak: *5 peseta*.

Egilea: Garbizu'taf Toma.

«Tripa zofi»: 15; gelenak motelxoak: *5 peseta*.

Egilea: Garbizu'taf Jon.

***

Idazkiak beren izenez argiratzea nai ez dutenak, izenordea eman bezalgute.

Sari-dirua jasotzeko ARGIA'ren banakariarengana zuzendu.

Saritu gabe geldidu diran idazkien egileak zuzendu bitez ARGIA'ra beren lanak jaso nai badituzte, beren izenik gak ez dakigu-ta: bestela ere egingo dira, beren izendun estalkiekin batean. Oietarako, 20 eguneko epea ematen diegu.

Eskefak biotzez guziei.

ARGIA'ren idaztiak

	Postekin
Ipuiak.—Elurmendi'k euskeratuak	0,50
Yolanda.—Pierre Lhande Aizek egindako irakurgaya	2,00
Gauko izkila edo urma	2,00
Afaldua.—Ipui zafa Etxanizi'taf Nemesi'k idatzia	0,35
Ipuyak.—Jauregi'taf Luis'ek idatziak	1,00
Argi-Donea.—ARGIA'ren Elizburua	

Eskatu ARGIA'ren Banakariari.

JOLASAK 4'en ofialdean.